



William L. Felstiner

Lege Soziologiako irakasleak eta Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundeko zuzendariak izandakoekin

William L. Felstiner, *Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundearen* Zuzendari Zientifiko izan zen 2000. urtetik 2002ra. Cardiffeko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko irakasle izandakoa. Bere ikerketa ildoan isla dira honako argitalpen seinalatu hauek: "Asbestos in the Courts. The Challenge of Mass Toxic Torts" (1985) (Deborah R. Hensler, Molly Selvin, Patricia A. Ebener-ekin); "Divorce Lawyers and Their Clients: Power and Meaning in the Legal Process" (1995) (Austin D. Sarat-ekin); "The Legal Culture of International Business Transactions Rules and Networks" (R. Appelbaum eta V. Gessner-ekin); "Reorganisation And Resistance: Legal Professions Confront a Changing World" (2005).



Volkmar Gessner

Lege Soziologiako irakasleak eta Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundeko zuzendariak izandakoekin

Volkmar Gessner Bremengo Unibertsitateko Katedradun da 1982 urteaz geroztik eta Unibertsitateko horretako *Europar Lege Politikako Zentroko* zuzendari izandakoa, bertako irakasle da, egun. *Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundeko* Zuzendari Zientifiko izandakoa, bere ikerketaren mugarri nagusiak izan dira honoko argitalpenak: *Normerosion, Baden-Baden* (1996) (M. Frommel-ekin); *Foreign Courts-Civil Litigation in Foreign Legal Cultures* (1996); *European Legal Cultures* (1996) (A. Höhland-ekin eta Csaba Vargarekin); *Rules and Networks-The Legal Culture of Global Bussiness Transactions* (2001). Horrez gain, *Zeitschrift für Rechtssoziologie* eta *TEMPUS-Textbook Series on European Law and European Legal Cultures* aldizkarien editoretako bat da.

1.

Bill Felstiner eta Volkmar Gessner ditut alboan, Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundeko zuzendariak izandakoekin. Elkarriketa edo mahai-inguru labur bat egingo dugu, gure herrialdeko eta nazioarteko Lege Soziologia eta ikasketa juridiko-sozialak aztertzeko. Lehenik eta behin, zuetako bakoitzari eskatuko nizueke arlo honi buruz daukazuen ikuspegia azaltzea; hots, zein alderdi iruditzen zaizkizuen interesgarrien, nola sartu zineten mundu honetan, etab. Zu zeu has zintezke, Bill.

Bill Felstiner: Lehendabizi Zuzenbide ikasketak egin nituen, eta hainbat urtez abokatu lanetan ibili nintzen, AEBetako Gobernurako, kanpo laguntza programetan, aurrena Turkian eta gero Indian. 1972an, Nixon hautatu zutenean presidente, ikusi nuen bere Gobernuak kanpo laguntzaren inguruan zeukan ikuspegia nirearen erabat ezberdina zela, eta, beraz, lana utzi eta unibertsitatera itzuli nintzen. Garai hartan, Indiako abeltzain eta nekazariak hiri handietara eginiko migrazioetan nengoen interesatuta, gizartearen antolakuntzan zer gertatzen zen jakiteko, baina konturatu nintzen legelari gisa neukan prestakuntza ez zela batere egokia horrelako ikerketak egiteko, eta Soziologian trebatu beharra neukala, batez ere Soziologiak darabiltzan metodoetan. Beraz, utzi egin nuen nire lanbide juridikoa –abokatu zorrotz bat nintzen artean–, eta, epe labur batean, fakultatera itzuli nintzen, nagusiki metodologian sakontzera. Beraz, soziologo bezala nahiko ezjakina naiz Teoria Sozialaren arloan, ez baitakizkit Soziologian lizentziadun direnek ondo ezagutzen dituzten gauzetako asko. Eta ezer gutxi dakit Europako Teoria Sozialari dagokionez.

Metodologiaren inguruko prestakuntza hori amaitu nuenean, konturatu nintzen jada ez zitzaizkidala interesatzen Indiako migrazioak. Abokatu gisa zazpi urte eman ondoren, ondo ezagutzen nuen AEBetako sistema juridikoa, eta, beraz, sistematikoki aztertzen hasi nintzen. Zehaztasun handiagotarik sar naiteke, baina, laburra izateko, esan dezadan nire ibilbide profesionalean abokatuen jokabidea aztertzen eman dudala denbora gehien, abokatu amerikarrena batez ere, nahiz eta britainiar batzuk ere aztertu ditudan, bitan izan bainaiz Erresuma Batuan bizitzen. Litigazioa ere aztertu dut, nagusiki masen litigazioa, asbestoen arriskuaren inguruko bat. Ondoren, dibortzio kasuetan abokatuen eta bezeroen artean sortzen den harremana aztertzen ibili nintzen hainbat urtez, xehetasun handiz, mikroskopikoki ia. Geroztik, gizonezko eta emakumezko abokatuen arteko ezberdintasunak aztertzen aritu naiz, bai

diru-sarrerei dagokienez, bai bezeroek sexu bateko eta besteko abokatuekiko duten ikuspegiari dagokionez. 35 urtetan denetariko ikerketak egin ditut, baina hauek izan dira gehien landu ditudan arloak, ondoen ezagutzen ditudanak. Esparru horietan neukan ekarpen berriren bat egiteko aukera.

Volkmar Gessner: Ni ikasketa juridiko germaniarren biktima bat naizela iruditzen zait. Ni ere Zuzenbidea ikasten hasi nintzen, München, eta, lizentziatu ostean, zertxobait atsekabetuta gelditu nintzen pentsaera juridiko-dogmatiko abstraktuarekin. Orduan, Soziologia ikasten hasi nintzen, München aurrena, eta Alemanian den Soziologia Fakultaterik garrantzitsuenean gero, Bielefeld-en. Gero, Zuzenbidearen bidetik jarraitu nuen, eta inolako arrakastarik gabeko abokatu bihurtu nintzen. Geroago epaile egin nintzen, eta nahiko pozik nengoen. Lehen instantzian aritzen nintzen, arlo zibilean lehendabizi eta penalean gero. Ez nengoen batere gaizki, baina denboraldi hartan praktika juridikoaren gaineko gogoeta egiteko zaletasuna piztu zitzaidan. Ez zeukan zerikusirik Zuzenbide Fakultatean ikasi genuenarekin. Sistema juridiko alemanean, espainiarrean bezala, sekulako alde dago Zuzenbide dogmatikoaren, ideia abstraktuen, fikziozko kasuen eta benetako errealitatearen artean. Jauzi handia dago hor. Sistema kontinentalak Zuzenbideaz gogoeta egiteko modu abstraktu eta erabat artifiziala sortu du. Beraz, Soziologiako ikasketak amaitu ondoren, Lege Soziologian sakontzea pentsatu nuen, bi elementuak uztartzea alegia: elementu juridikoak batetik –Zuzenbide Fakultatean ikasi nituenez, ondo ezagutzen nituenak–, eta elementu praktikoko edo enpirikoak bestetik.

Horrela, Zuzenbidea enpirikoki aztertzen hasi nintzen: praktikan Zuzenbidea nolakoa den, nola aplikatzen den, nola lantzen den auzitegietan eta Zuzenbideko beste esparruetan, etab. Enplegu bat lortu nuen Max Planck Institutuan (Hanburgo), Sail Sozio-legala zuzentzeko. Alemaniako Justizia ministroarentzat eta Lan ministroarentzat aritzen ginen lanean, legerian aldatzeko sartzeko ikerketak egiten. Bankuen araudia aldatzeko ikerketak egin genituen, bezeroentzako kredituen ingurukoak, laneko legeriarenak... Hainbat urte eman genituen horretan. Baina ez dut uste gure lana probetxu handikoa izan zenik Alemaniako politikagintzarako, azkenean ez zituztelako guk emandako datuak erabiltzen. Edonola ere, asko ikasi genuen ikerkuntza mota hauen inguruan, eta azterketa sozio-legalak egiten ere aritu ginen.

Beraz, esan bezala, abokatu bezala ez nuen batere arrakastarik izan, eta politikarien aholkulari bezala ere ez. Baina gero konturatu nintzen akademikook gizartearen betetzen dugun papera, gure eragina, mugatua dela, eta hobe dela gure dizipli-

nako ikastaroak egitea. Hain zuzen ere horretan datza Lege Soziologia. Gero, azterketa teoriko gehiago egin genituen, Zuzenbidearen eta gizartearen arteko tentsioak azaltzeko. Zuzenbide irakasle lanetan ibili nintzen Bremen-en (Alemania). Zuzenbide Fakultatean nengoenez, gai juridikoa irakatsi behar nuen, baina, horrez gain, Lege Soziologia ere irakasten nuen. Eta hori zen gehien gustatzen zitzaidana, Lege Soziologia irakastea. Geroago, Zuzenbidearen globalizazioarekin lotutako eskolak eman nituen, Zuzenbideak egoera berrietan nolako garapena izan duen ikusteko. Eta, ondoren, nire bizitzako arorik ederrena iritsi zen, Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundeko zuzendari izendatu nindutenean...

2.

Arrakasta itzela izan zenuen hemen...

V.G.: Hara, lege soziologok bi aukera izaten ditugu. Bata, Alemaniako Konstituzio Auzitegiko epaile izatea. Hain zuzen ere horretan dihardute nire lankide askok. Beste aukera, Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundeko zuzendari bihurtzea da... Oso aukera ona egin nuela iruditzen zait, eta nire bizitzako arorik zoriontsuena bizitu nuela. Ederra da interesa agertzen duten ikasleak izatea. Alemanian neuzkan ikasleek ez zuten Oñatiko ikasleek bezainbesteko interesik Lege Soziologiarekiko. Oñatin mota guztietako jendea biltzen da. Oso esperientzia polita da. Ez neukan ikertzen aritzeko denbora gehiegirik, baina Lege Soziologiako eskoletan oso elkarriketa interesgarriak izaten nituen euskaldunekin eta kanpotik etorritako jendearekin... Tamalez, duela bi aste agortu zait epe hori. Hau pena..

3.

Iruditzen zait zuek bion biografian badela antzekotasunik; izan ere, zuetako bakoitzak, bere lanean, une jakin batean, ikusi zuen Zuzenbidearen azterketa dogmatikoa ez zela nahikoa Zuzenbidea fenomeno sozial gisa ulertzeko, eta are gutxiago gizartea bera ulertzeko. Zuzenbidera hurbilketa dogmatikoa egiteko Zuzenbide ikasketetan Lege Soziologia sartu beharko litzatekeela iruditzen zaizue? Gure prestakuntzan eta, oro har, unibertsitateetako ikasketetan alde horretatik hutsune bat dagoela esango zenukete?

B.F.: Nire ustez, gaur egun egoera oso ezberdina daukagu AEBetan eta Europan. Amerikarron prestakuntza ez da hain dogmatikoa. Gure lege sistemak kontinentekoak baino askoz ere leku gehiago uzten dio diskrezionaltasunari. Eta Zuzenbide

ikasketetan dezente sartu dugu Lege Soziologiako arlo empirikoa. Duela 50 bat urte, Yale Unibertsitatean ikasle nintzela, soziologo bat, antropologo bat eta psikologo bat geneuzkan Zuzenbide Fakultatean. Edonola ere, ni atsekabetu nauena ez da lege sistema izan, baizik eta abokatuek bezeroen aurrean betetzen duten papera. Ni zazpi urtez izan naiz abokatu. Nire Estatuko enpresarik handienean ari nintzen lanean. Baina, aurrera begira jarrita, zera galdetzen nion neure buruari: hemendik 30 urtera pozik egongo al naiz bizitzan egin dudana Newhaven-go ur konpainia defendatzea izan dela ikusita? Nik uste Volkmarrek baino gehiago errespetatzen dudala Zuzenbidea instituzio sozial bezala, gizartearen egoeraren aurrean neurri batean sentibera den instituzio bezala, zeren eta lege sistema ezberdina lantzen ditugu, eta modu ezberdinean. Dena den, onartzen dut jakin-min intelektuala duten batzuentzat Zuzenbidea izugarri aspergarria izatea ikerketa zientifikoarekin alderatuz gero.

Segur aski, egin ditudan ikerketa guztien artean ospe gehien eman didana, Austin Saraten zientzialari politikoarekin egin nuena da, dibortzioetan espezializatutako abokatuen eta beren bezeroen arteko harremanari buruz. Ia bost urte eman genituen ikerketak egiten, eta gero hamar urte behar izan genituen liburua prestatzeko. Besteak beste, ikusi genuen abokatuek, bezeroekin hitz egiteko orduan, oso modu ezkorrean agertzen dutela lege sistema. Iritzi txarra dute bai epaileei buruz, bai beste abokatuei buruz, bai lege sistemari berari buruz. Eta horri etekina ateratzen diote, noski. Bezeroari zer esaten diote? Bada, sistema hain dela kaotikoa, gauza bakar bat egin dezaketela: eurengan fidatzea. Gero, gure ikerketan emaitzak abokatuei erakusten genizkienean, ez zituzten onartzen. Esaten ziguten hori guk aztertutako abokatuek egingo zutela, baina ez haiek. Ostera, jende horrek berak handik sei hilabetera deitzen zigun, esanez haiekin izan ginenez geroztik bezeroak artatzeko moduz pentsatzen aritu zirela, eta, tamalez, hain zuzen ere guk adierazi genien bezala tratatzen zituztela. Hori oso interesgarria da. Harreman sozial eta juridiko horretan bada dimentsio bat, partaideek sumatu ere egiten ez dutena. Kontua da horrek inolako aldaketarik ba ote dakarren. Segur aski ez. Oso eragin txikia du politika sozialean. Baina behintzat aurkikuntza bat da. Uharte berri bat aurkitu duen itsasgizonaren kasuan bezala, oso suspergarria da.

4.

Litekeena da tradizio europarrean, kontinentean bereziki, Zuzenbidea irakastearen eta dogmatismo juridikoaren pisua ezberdinak izatea. Ameriketako Estatu Batuetan, eta geroago baita Erresuma Batuan ere, Zuzenbidea kasuetan eta ara-

zoetan oinarrituta dago. Beharbada, tradizio ezberdinak izatearen ondorioak jasaten ari gara. Volkmar, zer irizten duzu honen inguruan?

V.G.: Europako lege sistemak guztiz artifizialak dira, Justinianoren Digestoak interpretatzeko moduaren oinordekoak. Zuzenbide fakultateak, mendez mendez, arau abstraktuak interpretatzen ibili dira. Ez zait gaizki iruditzen; interesgarria da arauak hartu eta dauzkaten inkoherez buruz eztabaidatzea. Dena den, azken 50 urteotan neure buruari galdetu izan diot zergatik irakatsi behar zaizkien Zuzenbide ikasleei eredu abstraktu horiek, praktikan inoiz erabiliko ez badituzte. Horra nire galdera. Orain arte aurkitu dudak erantzunik aproposena honakoa da: arau abstraktu horiek irakasten badizkiegu, ikasleak arauetan sinesten hasiko dira, eta arau horiekiko konpromiso bat dutela sentitzen. Izan ere, gizarte guztietan behar baita arauetan sinesten duen jendea... Ikasleek ez dakite ezer praktikari buruz. Gizartea horrela antolatuta dagoela pentsatzen dute, eta kito. Nik neuk ere horixe pentsatzen nuen fakultatean nengoenean: gizarte alemana horrela zegoela antolatuta. Baina, gero, konturatu nintzen irudi hori okerra dela. Zuzenbide fakultateetatik ateratzen den jendeak, ordea, Zuzenbidean sinesten du, eta bere lanbide juridikoa ahalik eta ondoen betetzen saiatzen da. Beharbada gizarte guztiek behar dute, neurri batean, horrelako jendea, Zuzenbideari guztiz lotuta dagoena, Zuzenbide abstraktu horretan sinesten duena. Ez zen nire kasua. Nik Zuzenbidea kritikatzeko beharra sentitzen nuen, eta Zuzenbide fakultateetan ematen zuten irudia zuzentzekoa. Hori zen nire xedea. Zuzenbide Fakultatean nituen lankideek ez zidaten jaramonik egiten, noski, ez zutelako inork beren irudi idealizatua zuzentzerik nahi. Beraz, lege soziologo garenok, normalean, nahiko baztertuta egoten gara Zuzenbide fakultateetan, kritikoak izaten garelako Zuzenbidearen inguruan ematen duten irudiarekin. Beste hainbeste esan daiteke Zuzenbide ikasleei buruz: Zuzenbidean sinesten saiatzen dira, eta ez daukate idealizatutako irudia zuzentzeko asmorik. Lege soziologok euren hezkuntzan perspektiba empiriko batzuk sartzeko ahalginak egiten ditugu, baina oso arrakasta txikia izaten dugu.

Oñatin, ordea, giroa nahiko ezberdina da. Jende guztiak izaten du interesa gizarteak nola funtzionatzen duen eta Zuzenbideak gizartean zein paper betetzen duen ikasteko. Horregatik, lege soziologo batentzat egokiagoa da Oñati, Europako edozein Zuzenbide fakultate baino.

5.

Garbi ikusten da ikuskeraz sozio-legala Zuzenbidera hurbildu beharra dagoela, bai Zuzenbidea kasuistikari lotuta dagoenean, bai Europaren kasuan, non kasuak aurrez finkaturiko arauari lotuta ebazten diren, nahiz eta ez zaion gehiegi begiratzeko praktikaren arloan gertatzen ari denari. Kasuotan, lanbide juridikoari gaur egun zein paper betetzen duen ikusten laguntzea izango litzateke soziologoek papera: gatazkak nola bideratzen diren, nola erreakzionatzen den horien aurrean, etab. Sistema kontinentalean, gainera, esparru juridikoan dabiltzanei argi eta garbi erakutsi beharko litzateke araugintzaren kulturaren transmisioak direla. Zer egin dezake Lege Soziologiak arlo teoriko hori koherenteago bihurtzeko? Zer egin dezake bere ekarpena eraginkorra izan dadin? Eredugarria al da Oñatiren adibidea? Zuzenbide fakultateetan ikasketak sozialak sartzeko gomendatu beharko al litzateke? Nola ikusiko zenukete hori?

B.F.: AEBetako eta Kanadako lege hezkuntzan, Zuzenbide fakultateetako irakasle batzuk zientzialari sozialak dira, eta ikasgai gehienetan arlo empirikoak lantzen dituzte.

Aspaldidanik, duela 40 edo 50 urtetik hona. Bigarren Mundu Gerraz geroztik. Denbora tarte labur batean, Soziologiak lege hezkuntzan presentzia handiagoa izango zuela ere ematen zuen. Baina, gero, ekonomialariak etorri ziren, eta Zuzenbidea behatzeko beste modu erabat ezberdin bat ekarri zuten. Eta, ulertzerik ez daukadan arrazoiren batengatik –ez nik eta, segur aski, ez beste inork–, Zuzenbidearen azterketa ekonomikoa askoz ere ezagun eta eraginkorragoa bihurtu zen, Zuzenbidearen azterketa soziala baino. Alde batetik, lege arazoei erantzun zehatzagoak ematen dizkielako, eta, bestetik, prestakuntza ekonomikoa jaso duten ikasle asko goi mailako karguetan daudelako gaur egun, epailatza federalean, eta kasu garrantzitsuak printzipio ekonomikoak aplikatuz ebazten dituztelako. Gainera, bide horretatik jo behar dutela esaten diete beren lankideei... Lege Soziologia 70eko edo 80ko hamarkadan kanporatu zuten lege hezkuntzatik, eta geroztik inoiz ez da Zuzenbide fakultateetara erabat itzuli. Dena den, gaur egun legegileen artean garrantzi handiagoa duela iruditzen zait.

Zuzenbidea ikasten hasi nintzenean, 1950eko hamarkadan, baten batek galdetzen baldin bazigun “Nola funtzionatzen du gaur egungo sistema? Nor ari da nor demandatzen? Zer lortzen da? Nolako da abokatuen eta bezeroen arteko

harremana? Nola egiten du lan legegileak? Zein da *lobby*-en papera? Nola parte hartzen dute abokatuek legegintzan?...”, inork ez zekien zer erantzun. Lege Soziologia, hasierako urteetan, oso enpirikoa zen, ez oso teorikoa. Pieza txikiak hartu, eta mosaiko bat osatzen joaten zen, eta denbora bat igarotakoan ikusten eta ulertzen genuen sortutako irudia: “Ah! Horrela funtzionatzen du, beraz, justizia penalaren sistemak!”. Zuzenbideko eskuliburuak irakurritz gero, ikusten da hori ez dela bidea. Baina sistemako atal guztietan sekulako diskrezioa dago: poliziaren jokabidean, fiskalaren jardueran, epaiketan, epaimahaiarengan, epailearengan, helegiteko epailearengan... Eta, hala ere, inork ez du inoiz hori gertatzen denik esan. Eta, diskrezio horren atzean, mota guztietako ekintza sozial gaitzesgarriak ikus ditzakegu, arrazismoa batez ere. AEBetan litigazio konstituzionalean eta legegintzan egin diren aurrerapen asko, mosaikoa ulertzeko dugun moduarekin daude lotuta...

Dena den, eta tamalez, politikak ere sekulako garrantzia daukate. Esaterako, AEBetan kritika ugari egin dira heriotza zigorraren konstituzionaltasunaren inguruan. Ikerketa enpirikoek erakusten dutenez, heriotza zigorrera kondenatzen direnak edo oso behartsuak dira, edo gutxiengo etnikoak dira, edo abokatu pobreak izan dituzte, eta abar. Auzitegi Gorenaren konfigurazio politikoaren ondorioz, gainera, gauzak ez dira ezertxo ere aldatu; ez ikusiarena egiten du ebidentzia enpiriko honen aurrean.

AEBetako Zuzenbide fakultateetako soziologoak ez daude marjinatuta, Alemanian egongo liratekeen bezala, baina bigarren mailako hiritarrak dira, ekonomialariek alderatuz gero.

6.

Zuen deskribapenak kontuan hartuta, iruditzen zait Lege Soziologiak gizartearen ekintzak ulertzeari dagokionez egin duela ekarpenik handiena. Hurbilketa europarra klasikoagoa da beharbada, hurbilketa dogmatiko bat arautu beharrean, ulertu egiten duelako. Beharbada horixe da Europak egin duen ekarpenik handiena... Zuk zer uste duzu, Volkmar?

V.G.: Bai, Zuzenbidea ulertzen lagundu dugu. Gure ustez, Zuzenbidea hain da garrantzitsua, ezin dugula abokatuen eskuetan utzi. Horregatik, Zuzenbideak gizartean betetzen duen papera ulertzen lagundu dugu, baina neurri bateraino bakarrik. Izan ere, nik ez baitut ukatzen Zuzenbide positiboak, Europa mendebaldeko gizarteetan, funtzio egituratzailea betetzen duenik.

Dena den, etorkizuna gurea dela sinetsita nago, eta ez abokatu dogmatikoena, zeren eta mundu globalizatu honetan desagertu egingo da Estatuaren monopolioa; beste eragile batzuk sortuko dira,

arau juridiko eta ez juridiko gehiago, elkar osatuko dutenak. Hori da lege soziologok marrazten dugun irudia. Juridikoki goitik behera egituratuta dagoen gizartearen irudia laster desagertuko da. Nire ustez, metodo juridikoak ez du balio ekonomia globalizatu eta gizarteko aldaketa globalizatuak ulertzeko. Hurbilketak konplexuagoa izan behar du, eta hori da guk eskaintzen duguna. Benetan pentsatzen dut hemendik hamar edo hogeitau urte barru, Zuzenbidean arituko direnak erabat galduta egongo direla ekonomia globalizatuan. Ez dute bizirauterik izango.

7.

Zergatik gertatzen ote da hori? Zuzenbide ikasketek oraindik ere gehiegi begiratzen diotelako Estatuari? Abokatua Estatuaren agintaritzaren eta legitimitatearen agente bat izan da. Eta hurbilketa hau ez da kritikoa izan araugintzako beste alderdiekin (nazioarteko araugintzarekin, Estatuak ez diren beste eragile batzuen araugintzarekin, etab.). Kasuotan, lege soziologoa, edo joera soziala duen abokatu, Estatuaren agintaritzaren edo legitimazioaren perpetuazioaren aurrean, elementu subertsiboa bihurtzen da ia. Horrek are marginalagoak bihurtzen al gaitu?

V.G.: Adibide bat ipiniko dizuet. Ez dago abokatuen nazioarteko langela alemaniar, frantses edo espainiar handi bakar bat ere. Abokatuen nazioarteko langela handi guztiak ingelesak edo amerikarrak dira. Honek azalpen ugari izan ditzake, baina denetan nagusia *Common Law*-rekin dago lotuta: abokatu horiek *Common Law*-n daude hezita, eta Zuzenbide hori malguagoa da gurea baino, praktikari irekiagoa. Nire ustez, Europako abokatuak, beren ikuspegia lehenbailehen aldatzen ez badute, ekonomia globalean galduta geldituko dira.

8.

Zein paper betetzen du orduan Lege Soziologiak gizartea aldatzeko orduan?

B.F.: Globalizazioa Volkmarren eremua da, ez nirea, nahiz eta bion artean liburu bat idatzi genuen, beste batzuekin batera, *Rules and Networks* izenekoa. Bertan, nahiko ondo azaltzen genituen Volkmar adierazten ari den ideia.

Segundo batez, AEBetako Zuzenbide fakultateen historiara itzultzea gustatuko litzaidake, Lege Soziologiarekin gertatutakoa ikusteko, zeren eta gero, ekonomialariak gure aurka mintzo ziren garaian, “korrante juridiko kritikoa” delakoa ere gu kritikatzeko ibili zen. Hauek ikuskera modernista zeukaten, eta esaten zuten gauzak ez direla finko-

ak, baizik eta azterlan enpirikoak daudela, asko eta asko, eta horietan eragin izugarria daukatela norberak egiten dituen galderak... Ez dira batere fidagarriak. Hamar-hamabost bat urtez borrokatu behar izan ginen horiekin, baina orain desagertuta daudela ematen du; AEBetako Zuzenbide fakultateetan, behintzat, dagoeneko ez daukate garrantzi handirik. Edonola ere, guri erakutsi ziguten ikerketa positibista egitea oso delikatua dela, eta oso kontuz ibili behar dugula, oso garbi izan behar ditugula gure helburuak, bestela handik eta hemendik joko dutelako gure emaitzen aurka...

9.

Neurri batean, lege soziologoek abokatuekin egindako gauza bera egin zuten lege soziologoekin...

B.F.: Agian bai.

10.

Lege soziologoek ispilu bat ipini zieten abokatuei, eta beren burua bertan begiratzeko eskatu. Gero, abokatuak lege soziologoaren aurrean jarri zuten ispilua, eta gauza bera esan zieten, begiratzeko han. Beharbada, euren burua ispiluan islatuta ikustean desagertu ziren hain azkar...

B.F.: Oso ona.

V.G.: Fenomeno berbera daukagu aurrean, Zuzenbidea eta ekonomia interesatzen zaizkigulako. Eta ulertzekoa da, arazko hurbilketa egiten delako bi kasuetan... Ekonomialariek eraginkortasuna bilatzen dute, eta hori ere arazko hurbilketa bat da...

11.

Konponbide erraz eta azkarrak eskaintzen ditu...

V.G.: Hain zuzen ere. Gure iritzian, bizitza kostua/etekina baino zerbait gehiago da... Faktore gehiago daude hor.

12.

Kulturarekin lotutakoak, adibidez.

V.G.: Zuzenbidearen eta ekonomiaren laguntzarekin, gizartearen hainbat alderdi azal daitezke. Beraz, legetariek eta ekonomialariek idatzitakoa irakurtzen eta aztertzen dugu. Baina askoz ere

gauza gehiago dira kontuan hartu beharrekoak, eta, horregatik, nire ustez, denen artean lankidetzan aritu beharko genuke. Hori da gaur egun Bremen egiten dudana. Ekonomialari batzuekin elkarlanean aritzen gara, elkarren ikuspegiak osatzeko asmoz, ez batari bestearenak inposatzeko.

13.

Bukatzeke, azken galdera bat egingo dizuet. Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundeko zuzendaririk arrakastatsu eta gogotsuenetakoak izan zarete. Zer irizten duzue Oñatin izandako esperientziari buruz? Erakundeak norantz jo beharko lukeela iruditzen zaizue? Zer egin liteke jendea diziplina honetara erakartzeko? Nola jardun beharko luke etorkizunean?

B.F.: Jendeak Erakundeak egiten dituen hainbat eta hainbat gauzaren berri izan beharko luke. Urtean 15 edo 20 bat *workshop* antolatzen ditu, eta mundu guztiko jendea etortzen da hauetara, hainbat egunez gai zehatz batzuen inguruan jarduteko. Askotan, liburuak argitaratzen ditugu jardunaldi horietan bildutakoarekin. Nire ustez, arrakasta handiko programa da. Ez dut uste hobetzeko modu asko egongo direnik. Bestalde, liburutegi bikain bat daukagu Oñatin, tamalez behar baino gutxiago erabiltzen dena. Aukera ona izan daiteke liburutegiaren aldeko propaganda egiteko, eta jendea hurbiltzera gonbidatzeko.

14.

Liburutegia munduko onenetakoa da bere arloan...

B.F.: Bai. Eta ez bakarrik ingelesezko bilduma izugarri bat daukalako, baizik eta, gainera, Europako beste hizkuntza batzuetan ere bilduma ederra daukalako. Master bat ere badaukagu Oñatin, jende gaztea Lege Soziologian trebatzeko, oinarri bat izateko, gero ikuspuntu hauek beren lanean txertatzeko aukera izan dezaten. Gainera, are hobea dena, Zuzenbidearekiko eta Gizarte Zientziekiko interesa piztea lor dezakegu. Nire ustez, asko aurrera dezakegu arlo honetan, ikasle gehiago izanez, eta hobeak. Programa eraldatzerik ere izango genuke, sakonagoa izateko, serioagoa. Urteak dira horrelakorik egin ez dugula, baina gauza asko egin ditzakegu.

Alderdi negatiboen artean, aipatuko nuke Euskal Herriko ikasle gutxi erakartzen ditugula, gehienez jota bat edo bi, eta urte batzuetan bat ere ez. Hemen bertako ikasleak erakartzeak on egingo

lioke gure programari, eta Lege Soziologiari oro har.

15.

Volkmar, zuzendaritza hau zure bizitzako esperientziarik ederrenetakoa izan dela aipatu duzu. Nola ikusten duzu Erakundea?

V.G.: Lanean hamasei urte eman eta gero, konturatu beharko genuke Euskal Herriko bailara honetan Lege Soziologiako munduko erakunderik garrantzitsuena daukagula. Eta hori pozgarria da oso, baina erantzukizunik ere eskatzen du. Azken bi urteotan egin dugunak gure gaitasuna, gure ezagutzak eta gure liburutegia osatzen lagundu digu, besteak beste. Lege Soziologiako Europako Lehen Konferentzia antolatu genuen, sekulako arrakastarekin, 180 lagun inguru bildu baitziren, eta 60 saio inguru antolatu ditugu hainbat gairen inguruan. Elkar ezagutu dugu, taldeak osatu ditugu... Arlo honek zenbateko garrantzia duen konturatzaren garenean, horrelako esperientziak errepikatzen jarraitzen badugu, halako ekitaldiak antolatzen, Oñatik etorkizun ederra izango du, eta, egunen batean, Euskal Herrian Zuzenbide ikasle direnak ere konturatuko dira etxean daukatenez. Dagoeneko lankidetzak bikainean ari gara Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleekin, eta batzuek ikastaroak ere ematen dituzte gure Masterrean. Aurrerapen handiak egiten ari direla iruditzen zait, eta Oñatik etorkizun oparoa izango duela.

16.

Nik uste amaitutzat eman dezakegula elkarrizketa bikain hau. Besterik erantsi nahi?

V.G.: Eskerrak eman nahiko nizkieke bai euskaldunei, bai Eusko Jaurlaritzari, hain irekiak izateagatik eta laguntzeko prest egoteagatik. Nik uste ez ez Billek, ez nik, inoiz ez dugula arazorik izan gure lan taldearekin eta Eusko Jaurlaritzarekin. Aurrekontuari dagokionez ondo gabiltza; gure euskal lagunen laguntza osoa daukagu.

B.F.: Arrazoa daukazu. Nik, gainera, esker bereziak eman nahiko nizkieke euskaldunei, sukaldaritzan daukaten trebeziagatik... Zeinen gauza goxoak egiten dituzuen!

Joxerramon Bengoetxea.: Ongi da. Eskerrik asko benetan.

Elkarrizketatzailea: Joxerramon Bengoetxea

Itzultzailea: Koro Garmendia

